

# **Euskal etnogenesisia, akulturazioa eta hizkuntzen arteko kontaktuen garrantzia**

**Harald Haarmann**

**Mendebaldeko kulturen eta hizkuntzen ikerlaria. Helsinki (Finlandia)**

**Itzultzaileak:**

**Marcelo López de Arana Arrieta eta Iñaxio López de Arana Arrieta**

Euskal Herrian gertatutako bategite etnikoen eta hizkuntzen arteko harremanen prozesuak aztertzen dira ikuspegi diziplinarteko batetik. Giza genetikak Euskal Herriak oso aspaldidanik izan dituela biztanleak adierazten du. Euskara eta euskaldunak bategite etniko batetik sortuak dira; bategite horretan herri aurreindoeuropar batzuek hartu zuten parte, haien artean kaukasiar herriekin afiliazio genetikoa zuten batzuek. Antzinaro berantiarrean euskararen egitura lexikal batzuk eraldatu ziren latinaren –prestigio-hizkuntza–eraginez eta epe luzerako akulturazio-prozesuak gertatu ziren euskaldunengan. Harreman sozialak oso urriak ziren erromatarren garaian, baina oso handitu ziren ostean. Euskal ahaidetasun-terminologian euskararenak ez diren elementuen jatorri erromanikoa da horren guztiaren lekuko.

In an interdisciplinary approach, processes of ethnic fusion and of language contacts in the Basque country are investigated. Human genetics has confirmed the long continuity of settlement in the Basque country. The Basque people and their language have emerged out of an ethnic fusion in which several pre-Indo-European populations participated, among them groups affiliated to the Caucasian genetic stock. Processes of a long-term acculturation in Basque-speaking communities started in late antiquity when, via the influence of Latin as a language of prestige, the lexical structures of Basque were partly reshaped. Social contacts between Basques and non-Basques were minimal in the Roman era but intensified in post-Roman times. Evidence of this are the foreign elements in Basque kinship terminology which stem from Romance sources.

## Aitzinsolasa\*

Menderik mende Euskal Herriaren eta euskararen sorrerak sekulako jakinmina piztu die gai horretan jakintsu zein ezjakin direnei. Euskara, ezbairik gabe, ez dago lotuta ez Europako, ez Europatik kanpoko hizkuntzaren bati ere, eta, hain zuzen ere, isolamendu horrexek erronka handia jo die hizkuntzalari-belaunaldi askori, euskararen ahaidetasun-genetikoak azter ditzaten. Esan beharra dago orain arteko azterlanen emaitzak eztabaidagarriak izan direla eta, horren ondorioz, ikerlariak ondoko bi taldetan daude banaturik: batetik, “sinesdunak” eta, bestetik, “sinesgabeak”. Baten batzuen ustez, euskararen eta hizkuntza berebereen, kaukasoarren eta paleo-siberiarren artean halako harreman urrun bat dagoelako hipotesia onargarria da. Sinesgabeen iritziz, euskara urruneko hizkuntzekin alderatzea espekulazio hutsa da (ikus Morvanek 1996an eta Traskek 1997an berriki argitaratutako azterlanak).

Luzaro euskaldunon artean arrakastarik handiena lortu duen autoidentifikazio-bereizgarrietako bat zera da: euskaldunak Europako herririk zaharretako bat –zaharrena ez bada– dira eta euren hizkuntza egun bizirik dirauten antzinako hizkuntzetan zaharrena da. Zahartasunak prestigioa ematen du munduko kultura askotan, eta baliteke horrek balio unibertsala izatea (Müller 1987: 54 hh.). Orainsu arte, ikertzaile askok euskal kulturaren antzintasun hori kultur estereotipotzat jo dute, inolako baliorik ez duelakoan antropologiaren edo hizkuntzalaritzaren arloko ikerlanik egiteko. Bitxia bada ere, euskal etnizitateari eta hizkuntzari buruzko estereotipo horri eutsi diote giza genetikaren arestian egin diren aurkikundeek. Antzintasun horren aldeko aldarrikapena bere osotasunean frogatu ez bada ere, argi dago euskal substratu etnikoaren osagaiak zahar-zaharrak direla.

Euskal etnizitatearen jatorria, bereizgarritasuna, nolabaiteko isolamendua eta urruneko herriekiko lotura genetikoak –hots, Kaukasoko herriekikoak– zertan diren zehaztu nahiak aukera berriak eskaini ditu diziplina humanistikoetan aditu direnek –hots, arkeologoek, antropologoek eta hizkuntzalariek– emandako datuak berriro ebaluatzeko eta giza genetikaren arloan egindako aurkikundeekin alderatzeko. Arlo desberdinetako datuak elkarrekin alderatuta, hipotesi zaharretako batzuen egiazkotasuna baietsi ahal da, bai eta bategite etniko eta linguistikoaren nondik norakoa berriro ebaluatzeko pizgarri berri bat aurkitu ere. Gero eztabaidatuko dira bateratasun horren ondorioz sortutako ikuspegi berrietako batzuk.

### Euskal Herriko giza asentamenduaren iraupena

Inork euskal etnogenesiaren misterioa argitu nahi badu, euskaldunen asentamenduaren iraupena oso kontuan hartu beharko du. Giza genetikak egiaztatu du Euskal Herri modernoan, hau da, Frantziako hegomendebaldeko eta Espainiako iparraldeko zenbait eskualdetan ezarritako asentamenduen antzintotasuna. Iraupena kontzeptu erlatiboa da Europako herriei bagagozkie. Europan bizi izan diren espezie hominido guztiak –hots: *homo erectus*, lehengo *homo sapiens* = Neanderthal gizakia; *homo sapiens* modernoa = *homo sapiens sapiens*– kanpotik etorri ziren kontinentera. Horrek esan nahi du aztarnak eta

---

\*. Jatorrizko testua “Basque ethnogenesis, acculturation, and the role of language contacts” izenburuarekin argitaratu zen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian (1998, urtarrila-apirila, LXXVII. zk, 25-42).

tresnak dokumentaturik dituzten espezie horietako bat ere Europatik ez datorrela. Aro Paleolitikoan, hominidoek Europarantz egin zuten, saldoka, ekialde-mendebalderantz eta hegoekialde-iparmendebalderantz batik bat. “Europako asentamendu paleolitikoa” izenekoa izan badela baieztatzeko behar adina arrazoi daude (Gamble 1986).

“Iraupen” hitza erabilgarria da gizakiek Europako euren lehenengo habitatak hartu ondorengo garaiak izendatzeko bada. Giza asentamenduek Euskal Herrian izan duten iraupenak gizaki modernoak eskualde horretan Goi Paleolitikotik etengabe bizi izan direla esan nahi du. Lehenengo biztanleen eta substratu etniko guztiz euskalduna zuten biztanleen arteko harremana konplexua da. Europako talde etnikoei buruzko argibide genetikoan azterlan konparatzaile batek dioenez, euskaldunak halako “ernatze”<sup>1</sup> bat dira eta euren soslai genomikoa eta gainerako etnizitateena oso desberdinak dira. «Litekeena da euskaldunak Europako aurreneko biztanle neanderthalondokoen ondorengorik zuzenenak izatea» (Cavalli-Sforza eta Piazza 1993: 11). Euskal etnizitatearen ezaugarri nabarmenetako bat O odol-taldearen eta RH negatiboaren ugaritasuna da (Cavalli-Sforza eta beste 1994: 280).

Ezaugarri horiek soslai genomikoan duten antzintasuna handia da. Ez dago ADN lagin zaharragorik ez Euskal Herrian, ez ondoko eskualdeetan. Denboran atzera eginez, O odol-taldeak beste odol-taldeen gainean duen nagusitasunak agerian uzten du halako mailaketa bat dagoela, Euskal Herria inguratzen duten eskualdeetatik euskal asentamenduaren gune modernora doana. Gradiente genetikoan kokapena euskal osagaiak dituzten toki-izenen zabalkundeari lotzerakoan, antzinatik egundainoko “ernatze” genetikoak eragindako geografi uzkurdua baten itxurari antzeman dakioke (ikus 1. mapa).

Zabalkunde handiena lortu zuenean, “ernatze”ak lehenengo, ez-indoeuroparrak –hots, iberiarrak– eta gero, indoeuroparrak –hots, zeltak– bizi ziren eremuaren zati handi bat hartu zuen (ikus 2. mapa). Hala ere, badira Espainiako hegoaldean eta ekialdean euskal jatorriko biztanle batzuen hizkuntz aztarren bakan batzuk. Iturri erromatarretan ondoko toki-izen hau agertzen da bi aldiz: *Iliberris* –\**ili berri*, “hiri berri” gaur egungo euskaran–. Izen hori Granadako eskualde batena –gaur egungo *Elvira*– eta Mediterraneo itsasoaren kostaldeko Roselló-rena da –gaur egungo *Elne*–. Antzinako beste izen bat *Iturrisa* da –hots, iberiar kostaldeko leku baten izena– eta izen horrek euskarazko “iturri”arekin zerikusia izan dezake. Ez nator bat Traskekin (1997: 39), berak esaten baitu euskal lurraldetik kanpoko izen horiek “kointzidentzia hutsak” izan daitezkeela.

Arriskutsua litzateke, haatik, “euskal” etnonimoa kartografia genetikoko prozesu urrunenatarako erabiltzea, aipatutako “ernatze” genetiko horren sorrerari dagokionez. Egokiago da pentsatzea euskal etnizitatea Paleolitoko soslai

---

1. Jatorrizko testuan *outlier* hitza erabiltzen du egileak. Haren adiera nagusia geologiari loturik dago; zehatz-mehatz, ‘haitz multzo berrien sorrera isolatua’ esan nahi du, bestelako haitzez inguratutik gertatzen den sorrera, alegia. Testu honetan hitz honek adiera berezia du; oraingoan *outlier* hitza soilik hizkuntzalaritzari eta etnologiari loturik dagoenez, haren esanahia arlo horretara lerratzen da. Beraz, ikuspegi horretatik, ondoko esanahia hartzen du: inguruko hizkuntzekin edo etniekin zerikusirik ez duen hizkuntza edo etnia baten sorrera isolatua. Ahaleginak eta bi egin ondoren, eta egokiagorik aurkitu ezean, guk *ernatze* hitza hautatu dugu horixe delakoan hizkuntza edo etnia baten sorrera isolatuaren ideia hori ondoen jasotzen duena. (I.O.).

genomiko horren ondorenik goiztiarra dela. Paleolitoko soslai genomiko hori Europako zaharrenetako bat da. Beste soslai genomiko zahar batzuk Europako hegoaldeko eskualdeetan daude kokatuta; eskualde horietako batauk Kaukasoon du epizentroa eta besteak, berriz, Sardinia uhartean (Cavalli-Sforza eta beste 1994: 273 hh., eta 294). Sardinian dauden giza aztarnarik zaharrenak K.a. 10. milurtekoak dira. Antzinako hiru soslai genetikoak –euskalduna, sardiniarra eta kaukasarra–, neurri batean behintzat, elkarri loturik daude eta,aldi berean, aro neolitikoa geroago gertatutako beste “ernatze” europar batzuetatik jare.

Genetika-ikerlariak saiatu dira aurkikunde genetikoak euskal “ernatze”aren kokalekua azaltzen duten hizkuntzalaritza-datuekin bateratzen. Euren ustez, kokaleku hori herri zahar-zahar baten aztarrena da; herri horrek Cro-Magnon motarekin zerikusia izan dezake eta, garai jakin batean, Europako ekialdetik mendebaldera emigratu zuen. Emigrazio paleolitiko horren abialekua Kaukasoko mendebaldea izan daiteke. Euskaldunon eta kaukasarren arteko antzekotasun genetikoak (Piazza eta beste, 1988) baieztatzen du argudio hori. Horrek, neurri bateraino, euskaldunon jatorria Kaukason dagoela dioten zenbait aurretiazko espekulazio bultzatzen ditu. Europako hegosartaldean bizi zen mendebaldeko jendeak Kaukasoko bere sortaldeko jatorriarekin zuen lotura izotz-plakak azken aro glaziarrean hegoalderantz egindako aurrerakadak eragotzi edo zeharo eten bide zuen. Hori glaziazio handieneko aroan gertatu zen, hain zuzen ere, K.a. 20000. urtetik 18000. urtera bitartean.

Horren ondorioz, mendebaldeko “kaukasorrek” euren asentamenduan jarraitu zuten –luzaro beste inmigrante batzuek ez zieten enbarazurik eragin–, eta gizarte-harreman endogamikoak nagusitu ziren. Glaziazio handienaren aurreko garaian Frantziako hegoaldeko eta Espainiako iparraldeko zenbait komunitatek gora egin zuten ekonomiaren zein kulturaren ikuspegitik (Reynolds 1990, Straus 1990). Pintura paleolitikoak dituzten kobazulo gehienak eskualde horretan daude (ikus 3. mapa). Zenbaiten iritzi, orduko gizakiak dezente moldatu ziren ingurunera eta, horren ondorioz, aurrerapen teknologikoak eta artistikoak gertatu ziren. «Goi Paleolito berantiarreko egokitzapenen artean, biziraupen-estrategia oso landuak, oso planifikatuak eta teknologi maila handikoak zeuden; garrantzi handiko osagai sozial eta zibernetikoak zituzten, arte mugikor eta errupestrea munduko alde horretan sortu izanaren isla nonbait» (Straus 1990: 297). Inondik ere, Paleolitoko arte errupestrearen sortzaileek halako ahaidetasun urruneko bat dute euskal etnizitatearen eramaleekin.

Horrek ez du esan nahi, ordea, euskaldunek aro paleolitikoan sortu zuten arte errupestrea, zeren euskal etnizitatea eskualde horretako herri paleolitikoaren geroko afiliazioa baita. Euskal soslai genomikoa –gaur egun ezagutzen dugun bezala– glaziarrendoko aroan sortu bide zen, Mesolitoan eta Neolitoan, eta gaur hori jendeak ordura arte hutsik zeuden eskualdeetara egindako zabalpenari loturik dago. Madeleine aldian –K.a. 17000. urtetik 11000. urtera bitartean, gutxi gora-behera– «jendeak bailara sakonetan barna egin zuen, morrenen gainetik eta mendietan kokatu ziren (...). Zabalpen handi hori mendikatean zehar ezezik, mendikatearen sakonguneetan ere gertatu zen» (Clottes 1976: 1221).

Paleolitoko kode genetikoaren ezaugarriek Euskal Herrian euren horretan irautea aski adierazgarria da berez. Lehenengo asentamenduen arkeologi aztar-

nek, denon harridurarako, argi uzten dute eskualdea oso jendetsua zela, ia-ia gaur egun bezain jendetsua. Horrenbestez, Euskal Herria Europa osoko eskualde jendetsuena zen. Lehenengo biztanleen kontzentrazio-maila handiak berean jarraitu du, ia-ia gorabeherarik gabe historian zehar, eta horrek erakusten du zergatik dirauten oraindik antzinako ezaugarri genetiko horiek gaur egungo belaunaldien ADNan.

### **Zenbait ikuspegi bategite etnikoari eta euskararen hizkuntz geruzapenari buruz**

Giza genetikak froga sendoak eman ditu: batetik, Euskal Herriko asentamenduak Paleolitik etengabe iraun duela egiaztatzen du; eta, bestetik, lehen adierazitako datu genetikoek babestu dute euskaldunen eta kaukasoarren arteko ustezko lotura. Sinesgabeek dagoeneko ezin dituzte, besterik gabe, baztertu euskararen eta hizkuntza kaukasoarren arteko konparazio lexikalak –eta morfologikoak–, espekulazio hutsak direlakoan –Mitxelenak 1968ko bere azterlanean egin zuen bezala–, konparazio horiek aipatutako froga genetikoekin alderatzen baditugu, behintzat. Euskal azterlanen ibilian Hervás y Panduro (1784) lehena izan zen euskara Kaukasoko hizkuntzari –hots, georgierari– lotzen. XIX. mendean ere euskal-kaukasoar hipotesia lantzen jarraitu zuten. Hipotesi honen jarraitzaileen artean izen handiko ikerlariak aipatu behar dira, hala nola, G. W. Leibniz, J. Chr. Adelung, J. Klaproth, W. v. Humboldt, F. Müller, H. Schuchardt, N. J. Marr, G. Dumézil, C. C. Uhlenbeck, K. Bouda eta beste (ikus Morvan 1996: 54 hh., azterlan historiko bat eskuratu nahi bada).

Nolanahi ere, «alde horretako lan-kopurua euskal lotura genetikoei buruzko gainerako lan guztien bilduma baino handiagoa da» (Trask 1997: 392). Hipotesi horrek mende hasieran ordura arte baino arrakasta handiagoa lortu zuen eta, gero, Boudaren (1949, 1952) azterlanei esker, bere goreneko unera iritsi zen. Hala ere, Mitxelenak Boudaren lanari buruz egindako balorazio guztiz ezkorra (1953, 1964b) argitaratu ondoren, euskararen eta kaukasoar hizkuntzen arteko ustezko lotura sekula baino eztabaidagarriagoa izan da. Sobietar eta sobietarrondoko aldietako ikertzaileei –kaukasoar hizkuntzetan espezializatuak baitira– euskararekiko lotura oso interesgarria iruditu zaie betidanik (esaterako, ikus Chicobavak eta Sturuak 1981ean eta Cirikbak 1985ean argitaratutako azterlanak). Horra zergatik itzuli zen Lafonen lana errusierara (1976).

Euskararen eta kaukasoar hizkuntzen arteko antzekotasunei lotutako aurkikundeak oinarritzat harturik, itxaropen handiak daude aurrerantzean arlo honetan hizkuntz ikerlan gehiago egiteko. Horrek, ordea, ez die ikertzaileei kenduko etimologia zaharrenak kontu handiz aztertze eta alegiazko konparazioak baztertze lana. Uhlenbeckek, Boudak eta bestek landutako laurehun euskal-kaukasoar etimologietatik ehun baino gutxiago izan daitezke gauza pentsaera kritikoa duen inoren arreta erakartzeko. Gaur egun, oraindik ere ez da alboratu lan konparatzailea (Braun 1994). Euskararen eta kaukasoar hizkuntzen arteko morfologi konparazioek gaur egun espekulaziozkoak dirudite, beharbada hizkuntzalaritza historikoak duen metodo-eskasia dela eta.

Ikerkuntza konparatzaileak taxuzko emaitzak lortzeko dituen oztopoak argitzen dituen beste azalpen bat dago, euskal gaietan aditua denak kontuan hartu beharrekoa: litekeena da euskal-kaukasoar lotura ia guztiz galdurik egotea hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, genetikaren arloan oso nabarmena den bitartean. Genetika-ikerlariak erabilitako terminologia berreraiketa historiko-linguistikoen bidez eskura daitekeena baino giza bilakaeraren eskala handiago bati dagokio. Genetika-ikerlariak Kaukasotik Europako mendebaldera gertatutako mugimendu migratzaileez ari direnean, desplazamendu genetikoak adierazi nahi dute. Paleolitoaz bezainbatean, pentsatzekoa da ez zela puntu urrunen arteko migrazio antolaturik gertatu. Desplazamendu genetikoaren atzean dagoena seguru asko jende haien hedapen-prozesu bat da, milaka urte behar izan zituena ikuspegi genetikotik kontuan hartzeko moduko joera bat emateko.

Azkenean Europako mendebaldean ezarri ziren kaukasoar jatorriko biztanle horien hizkuntzek aldaketa handiak jaso bide dituzte Europako hegoaldeko eta erdialdeko herri indoeuoparren aurreko beste herri batzuekin harremanetan jartzean. Lehenengo harremanek komunitate neanderthalekiko elkarreragina ere ekarri bide zuten. «Musteriense alditik Goi Paleolitora eta Neanderthaletik Cro-Magnonera doan trantsizioak konplexuagoa dirudi, ez, ordea, sarri uste izaten den bezain zurruna; garai hartan, ez omen zen erabateko ordezkapenik gertatu; itxuraz, aldaketak eta aldaketon kontrako joerak suertatzen ziren txandaka; egoera horrek denboran, espazioan eta itxuran mosaikoa zirudien gehienbat, eta, batzuetan, oso mailakatua zen eta, beste batzuetan, berriz, inolako mailaketarik gabea» (Straus 1996: 212).

Euskararen eta paleoasiar eta uralar hizkuntzen arteko ustezko harremana kaukasoar jatorriko jendearen eta lehengo biztanleen arteko aurreneko harreman haien aztarrena izan daiteke (Morvan 1996: 34 hh., 139 hh.). Pentsatzekoa da, beraz, inork Kaukasotik alde egin baino lehen, zenbait giza taldek "euro-siberiar" hizkuntzen familiako aldaera batzuk erabiltzen zituztela hitz egiteko. Paleo-asiar hizkuntza modernoak antzinako superphylum horren erlikiatzat jo daitezke (Volodin 1997). Hizkuntza horien eta uralar hizkuntzen arteko behialako lotura linguistiko-genetikoak yukaghir-aren eta uraleraren arteko senidetasuna frogatuz gauzatu dira (Ruhlen 1994: 209).

Seguru asko, indoeuoparren aurreko herri haiek ez ziren homogeneousoak, ez etnien, ez hizkuntzen. Beste hizkuntza batzuetan aztarna bakan batzuk baino ezin dira aztertu, baldin eta substratu-elementu gisa agertzen badira hizkuntza historikoen hiztegian, bai eta Europako mendebaldeko eta ekialdeko toponimian eta hidronimian ere. Euskal lexikoaren substratuaren barruan dagoen indoeuoparren aurreko unitate lexikalen kopurua txiki xamarra da. Hubschmidek (1965) bere azken zerrendan proposatutako hamahiru substratu-elementuetatik batzuk oraindik eztabaidagarritzat jo daitezke, esaterako, *pentoka* eta *muga*.

Hitz hauetako batzuk beste hizkuntza batzuetako hitzen antzekoak dira; hitz hauexetarako ere indoeuoparren aurreko etimologiak proposatu dira. Aurkitu ere aurkitu da euskararen eta sardinieraren arteko antzekotasunik, bai eta euskararen eta balkandar penintsulako hizkuntza batzuen arteko ere; albaniera da adierazle nagusia, dituen elementu autoktonoengatik (Morvan 1996: 60). Adibidez, aipagarria da *mal-* sustraia, indoeuoparren aurreko jatorria bide duena. Euskaraz bada

sustrai hori duen hitzik, hala nola, *malda* eta *malkor*. Albanieraz, horren baliokidea *mal* “mendia” da, eta Grezian hizki hori duten leku-izenak daude (Villar 1991: 64).

Indoeuoparren aurreko substratu-elementuen geruzari dagokionez, euskararen eta Europako hegoekialdeko hizkuntzen arteko antzekotasunak oso interesgarriak dira, azterlan berri batzuek Balkanetan ezarri baitituzte indoeuoparren aurreko ezaugarri bereizgarriak. Europako talde etnikoen sare genetikoan, soslai genomiko grekoa halako “ernatze” bat dugu, euskal soslai genomikoa bezalaxe. Horrek esan nahi du grekoak –aldameneko herri eslaviarren bat barne– desberdinak direla Europako gainerako herrien aldean. “Ernatze” grekoa “mediterranean genotipo” izenez ere bada ezaguna.

Genetika-ikerlarien ikuspegitik, genotipo hau grekoek Antzinaroan Grezian, Asia Txikiko kostaldean eta Italiako hegoaldean zehar izandako hedapenaren isla da (Cavalli-Sforza eta beste 1994: 293). Hala ere, asentamendu greko baten aztarna arkeologikoak “mediterranean” genotipoak hartutako eremua baino askoz txikiagoa den lurralde batean daude. Bestela esanda, erdialdeko “mediterranean” genotipoa grekoak inoiz ezarri ez ziren eskualdeetara iritsi zen (Haarmann 1997).

Askoz ere litekeenagoa da soslai genomiko hau indoeuoparren aurrekoen isla izatea (Villar 1991: 57). Hain zuzen ere, indoeuoparren aurreko haiek izan ziren Europako Antzinako Zibilizazioa izenekoaren garraiatzaile; garai hura K. a. 5500. urtetik K. a. 3500. urtera bitartekoa da. Geroago, indoeuoparren aurreko haiek eskualde horretara joandako indoeuopar migrazioekin nahasi ziren (Gimbutas 1991). Argudio arkeolinguistikoei jarraiki, “mediterranean” genotipoa indoeuoparren aurreko ezaugarri genetikoaren ordezkari izan zen. Osaera genetikoari dagokionez, “ernatze” grekoa euopar soslaiaren berezko ezaugarrietatik dator.

Egin berri diren azterlanetan ahaleginak egin dira euskara indoeuopar jatorria omen duten ibai- eta leku-izenei lotzeko. Vennemannek dioenez (1993, 1994, 1995), bada Alpeetako iparraldeko eskualde zabal batean aurkitutako izenak euskararen behialako hizkeratzat hartzen den hizkuntza bati lotzea. Berak egindako konparazioak, ordea, ez dira batere fidagarriak, ez eta hizkuntz homogeneotasuna nagusi zelako ustea ere. Seguru asko, indoeuoparrek Europako erdialdean eta mendebaldean sartu ziren garaian, indoeuoparren aurreko hizkuntz familia batzuetako –euro-siberiera, antzinako kaukasoera eta beste– zenbait hizkuntza baziren. Orduko hizkuntz aniztasuna eta erromatarren aurreko garaian Pirineotako bi aldeetan zegoen hizkuntz egoera berdintsuak izango ziren.

Euskal Herriko herri paleolitikoak eta eurek Kaukasoko jendearekin zuten urruneko harremana hizpidera ekarrita, harreman honek ez du homogeneotasun etnikoa azpimarratzen. Garai historikoetan, ikuspegi etnikotik, mendebaldeko herriak ekialdekoak bezain heterogeneoak izan bide dira. Izan ere, euskal etnogenesisia garatu zen ingurunea ez zen ez etnia ez kultura bakarrekoa izan. Aldiz, euskal etnizitateak betidanik izan duen ezaugarri bereizgarriena etengabeko bategite-prozesua da, gaur egun oraindik indarrean dirauena. “Ernatze” genetikoaren uzkurdua historikoak, giza genetikak agerian utziak, euskaldunak ahaidetuta dauden substratu etnikoaren indoeuopartze arian-arikoaren berri zehatza ematen digu. Bategite etnikoaren prozesu honetan, espainiar edo/eta frantses jatorriko geneekiko nahasketa faktore modernorik garrantzizkoena da.



Giza genetikak oraindik ez dio erantzunik eman euskal ezaugarriak dituen substratu etnikoaren oinegiturari buruzko galderari; oraindik ez dago datu genetikorik, historia aurreko aldietan bategite etnikoaren prozesuan parte hartu zuten talde etnikoei buruzko baieztapenik egiaztatzeko. Beraz, euskal “ernatze”aren soslai genetikoa ematen ditu eskualdeko funtsezko substratu etnikoaren indoeuroparren aurreko ezaugarriak; bategite lokalaren funtsezko faktoreak, ordea, oraindik zehaztu gabe daude. Ildo horretatik, euskaralarien egoera ez da aldatu giza genetikaren arloan gertatutako garapen izugarriaren ondoren ere; horrek esan nahi du bategite etnikoaren prozesuei buruzko auziak hizkuntzalaritza historikoaren arloko ikerketa konparatzailean oinarritu behar duela gehien bat.

Azterlan etnikoetatik ateratako ondorio orokor gisa esan daiteke onargarria dela bategite etnikoa gertatzen den lekuan, ezbaierik gabe, horren hizkuntz aztarnak topatzea. Azkenean euskal “ernatze” genetikoa eragin zuen bategite etnikoaren kasuan, espero dugu bategite horretan parte hartu zuten hizkuntzetako elementuak euskararen baitan identifikatzea. Ikerketaren bidez batez ere hiztegia aztertu da, baina gramatika-azterlanak ere egin dira hizkuntz oinegitura alderdianitza nagusi den egoera batean. Izan ere, dudarik gabe, euskararen egitura lexikalak geruza askotan daude antolatuta, euskal “ernatze”a sortu zen eskualdeko beste hizkuntza lokal batzuekin izandako harremanen ondorioz.

Euskararako makina bat hizkuntz geruza proposatu dira. Hizkuntzen arteko historia aurreko edo aldi historikoko harremanen frogatzat eskaini nahi diren aztarna linguistiko asko ez dira oso argiak, gainera, material linguistikoarekin batera sortutako interpretazio-arazo handi bat gertatu zen. Galdera askok ez dute behin betiko erantzunik –oraindik–. Akitaniera “euskal hizkuntza garbi-garbia” da (Trask 1995: 35) eta gure egunetara iritsi diren aztarna bakanak erromatar garaikoak dira. Hizkuntza hori al da euskararen hizkuntza biki bat edo euskararen antzinako mintzamolde bat? Euskal lexikoaren iberiar elementua iberiarren eta talde protoeuskaldunen –hizkuntz amalgama bat– arteko bategite etnikoaren islada al da? Edo euskal hizkuntza guztiz garatu batek erromatarren aurreko garaian zibilizazio iberiar hirikoarekiko harremanen ondorioz bereganatu zuen zeharkako eragina al da? (ikus Castro 1995: 312 hh., iberiar komunitateen “itxura greko-klasikoa”ri buruz).

### **Akulturazioaren nondik norakoa eta hizkuntz egituretan duen islada**

Hizkuntza bategite etnikoaren prozesu batean sartuta badago, akulturazioa, hots, kanpoko kultur ereduak hartzea, inplikazio horretako faktorerik garrantzitsuena da. Kontaktu-aldeetan zaila da akulturazioaren mugak argi zehaztea. Hortaz, errazagoa da kulturak etnien arteko harremanetan izandako jokabide arbitrarioa honela interpretatzea: akulturazioaren funtsa, hizkuntz interferentzia eragiten duen edozein harremanen osagaietako bat dena, bere eraginaren mailaketa-desberdintasunean datza. Beraz, ezaugarri akultural-sorta handi bat islada daiteke hizkuntz egituretan. Ezaugarri akultural horiek zernahitakoak izan daitezke, bizimodu modernoari lotutako puri-puriko hitzen hartzetik hasita eta harreman sozial eta intimoen inbentario lexikalaren berregituratzera bitartekoak. Lehenengoa azaleko akulturazio baten adierazpena da; bestea, berriz, kultur ingurunearen hizkuntz berreraikuntza sortarazten duen eragin bete-bete baten islada da.



Bere historia bitxian euskarak atzean utzi ditu teorian eragin akulturalen mailaketan bereiz daitezkeen etapa gehienak. Euskarak hizkuntz mehatxu larririk ez duenez, ez du hizkuntza gutxitu asko ia desagertzea eragin duen esperientzia soziolinguistikorik. Hona hemen galbidean dauden Europako hizkuntza batzuk: liboniera Letonian; botikoa eta izhoriera Estoniaren eta San Petersburgoren arteko Ingermanland izeneko eskualde historikoan; eta karaim hizkuntza Lituanian eta Polonian. Euren hizkuntz egiturak, neurri handi batean, birmoldatu egin dira, kontaktu-hizkuntza indartsuen eraginez. Eskuarki, hizkuntza horiexek bereganatzen dituzte hizkuntza gutxituak. Osoko bereganatzea guztizko akulturazio baten ondorioz gertatzen da eta prozesu hori kanpoaldeko euskal komunitate askok bizi izan zuten. Komunitate horietako kideak lehengo garaietan frantsesak eta espainierak bereganatu zituen. Gaur egun, Euskal Herriak horrelako akulturazio bat bizi du, baina 80ko hamarkadan kultur eta administrazio autonomia lortu ondoren moteldu egin da prozesu hori.

Argi dago antzinatik euskal lurraldean akulturazioa gertatzen ari dela, bai hizkuntz kontaktu izugarriengatik, bai etnien arteko harreman ugariengatik. Akulturazio-prozesurik luzeenak eta ezagunenak latinetik abiatuta hizkuntza erromanikoak sortarazi zituztenak dira. Erromatarren eragina nabarmentzen hasi zen garaitik, eskualde horretan akulturazio-maila altua gertatzeko joera ikus daiteke. Latinetiko mailegu-kopurua ez da funtsezkoa akulturazio-maila zehazteko, eraginaren neurria jakiteko argibiderik ematen badu ere. Ezin da kopuru zehatzik doitu, zaila baita muga argirik ezartzea latinetik hizkuntza erromanikoetara bitarteko igaroan. Latinetiko mailegu mordo bat iturriaren arabera aldatzen da. Haarmannek 674 unitate lexikal aztertuen zerrenda egin zuen (1979: 35, 131 hh.).

Euskarak dituen latinetiko maileguen inbentarioaren ezaugarri bereizgarrien artean, 58 unitateko halako gune bat dago, hizkuntza erromanikoetan parekorik ez duena. Horrek esan nahi du hitz horiek euskalkietan esamolde arrunt gisa hartu izan direla; hizkuntza erromanikoetan, berriz, ez dute baliokiderik. Talde horretakoak ditugu latinetiko ondoko hitzak: ANIMU, AUREU, BURSA, COMPUTARIA, FAMA, VELAMENTUM, VINATA eta beste. Beste hitz batzuk herri-esamolde gisa geratu dira euskaraz, baina hizkuntza erromanikoetan hitz haien garapen fonetikoak mailegu jasoen berezko ezaugarriak erakusten ditu eta goi mailako kulturakotzat jotzen dira. Gisa horretakoak ditugu hauek: DISCIPLINA, FIGURA, GLORIA, INDUSTRIA, LIBRU, NATURA, OMEN, SANCTU, SPIRITU eta beste.

Ezaugarri akulturazional bezainbatean, maileguek arlo lexikalean duten banaketa da, eta ez bere kopurua, argibideak ematen dizkiguna kultur ereduen aldaketei lotutako eraginak sailkatzeko. Hizkuntz interferentzia maila sozialean etnien arteko harremanen ondorioz gertatzen da; kultur mailan, berriz, lehengo kultur jarraibideak aldatzeko joerek eraginda; eta, bukatzeko, maila linguistikoan, ordura arteko eredu lexikalen berrantolaketaren ondorioz. Aipatu hizkuntz interferentzia jaso dezaketen arloak ondokoak dituzue: numerologia, ahaidetasuna eta gorputz-atalen terminologia eta sistema deiktikoaren elementuak –hots, juntagailuak, interjekzioak, partikulak, izenordainak, moduzko adberbioak–; (ikus Haarmann 1986: 160 hh. ideia orokor bat izateko). Beste arlo lexikal batzuetan ere gertatzen da akulturazioa, indar gutxiago badu ere, esaterako, neurrien eta denbora-harremanen terminologian eta mundu-ikuspegi erlijioso baten eta norabide-orientabideen terminologian (Haarmann 1991: 210 hh.).

Gramatika-funtzioen araberako hitz-banaketak hizkuntz kontaktuen indarra ezezik zeharka akulturazioaren kalitatea ere adierazten du. Terminologia teknikoa soilik mailegatzen bada, mailegu gehienak izenak izango dira. Zenbat eta handiago izan hizkuntz interferentziari lotzen zaion akulturazio-maila, orduan eta gehiago izango dira maileguen artean beste hitz mota batzuk sartzeko aukerak. Euskarak dituen latinetiko maileguen artean hiru hitz-mota daude: 551 izen (latinetiko mailegu guztietatik %81,8), 89 aditz (%13,2) eta 34 adjektibo (%5). Banaketa honen portzentaiak latinak bretoierari eman dizkion maileguen portzentaien antzekoak dira (Haarmann 1979: 38). Albanierak latinetiko mailegu-aniztasun handiagoa du euskarak baino, adberbioak, preposizioak, zenbakiak eta juntagai-luak ere mailegatu dituelako.

Formaren eta gramatikaren arteko harremanen beste arlo batean atzerriko eraginak isladatzen du hizkuntza menperatzaile batek akulturazio-bide gisa gizar-te-harremanetan eragiten duen presioa. Beste arlo hori morfologia sintaktikoaren sorkuntza-sistema da. Euskal gramatikan latindar jatorriko zenbait sorkuntza-teknika daude, besteak beste, hauek: latina *-ARIA* > euskara *-era* (esaterako, *COMPUTARIA* > *kondera*), *-ARIU* > *-ari* (esaterako, *\*MERCATARIU* > *merkatar*), bai eta *-ARIUM* > *-airu* (esaterako, *MORTARIUM* > *mortairu*) etab. (Haarmann 1979: 17). Erromatar kultur ingurunearen mugan dauden beste hizkuntza batzuekin alderatuta, euskarak sorkuntza-elementu gutxiago hartu ditu galeserak, bretoierak, albanierak edo Bizantzioko grekoak baino.

Luzaro, akulturazioaren islada diren hizkuntz kontaktuak ez dira ondo ulertu, ezta interpretatu ere. Nahasketa hori hizkuntzalaritza historikoak ere eragin zuen, metodo glotokronologiko bidez. Glotokronologiak axioma batzuk ditu oinarritzat, besteak beste, “kultura aurreko” hiztegi bat ba omen zela. Ideia hori oso eztabaidagarria da, egitura lexikaletan bi sail daudela esaten baitu, batetik, oso aldaketa gutxi dituen errepertorio nagusi bat, eta, bestetik, beste errepertorio bat, “kulturazkoa”, non maileguek eragin baitezakete, eta berregituratu daitekeena. Hiztegia “oinarrizko” –“historia aurreko”– egiten duena hauxe da: «Hitz-mota semantiko batzuk beste batzuk baino askoz ere zailago har daitezke mailegutzat» (Trask 1996: 23). Oraindik ez dago argi zer esan nahi duen “mailegutzat zailago hartzeak”.

Elebitasunaren eta hizkuntz kontaktuen arloan, ikerketa konparatzaileak egitura lexikalen kultur finkapena gertatu dela egiaztatzen duten frogak asko eman ditu. Ez dago “kultura aurreko” ezer inongo hizkuntza baten hiztegian. Hizkuntzak, adierazle nagusi modura, giza kulturaren sail guztiak hartzen ditu eta bere egitura lexikaletan isladatzen dira hitzunen euren kultur ingurunean ibiltzeko dituzten komunikazio-behar orokorrak. Maileguek ez diote lexikoari bakarrik eragiten, hizkuntzaren edozein sistema partzialki eragin diezaiokete, hala nola, fonetikari, morfologiari eta sintaxiari (ikus Campbell 1993, azterlan modernorik eskuratu nahi bada).

Kontaktu-hizkuntza lokal baten baldintza berezien arabera, B Hizkuntzatik hartutako hitz batek A Hizkuntzaren ia edozein hitz ordeztu dezake (ikus Haarmann 1990, gaia landu nahi bada). Horrek arlo profesionaleko teknologia teknikorako –esaterako, japonierak automobilgintzan dituen ingelesezko hitzak– balio du,

eta modaren hizkuntzarako –alemanierak emakumeentzako goi mailako joskintzan dituen frantsesezko hitzak– zein giza esperientziaren kontzepturik oinarritzkoenatarako: ‘ama’, ‘eskua’, ‘txoria’ edo ‘gaua’. Terminologia glotokronologikoaren akatsen maiseaketa gogortu zen heinean, hizkuntzalari historikoeak dei egin zuten «ahalegin handi bat egiteko oinarritzotasun kontzeptua zehaztu eta mugatzeko» (Bynon 1977: 271), lexikoaren elementuei dagokienez.

Litekeena da helburu hori lortzeko orain arte egindako ahaleginek oraindik ere emaitzarik ez ematea, kultur harremanen araberakoak baitira edozein hizkuntz komunitateren egitura lexikalen oinarriaren zer-nolakoa eta neurria. Horrenbestez, balio unibertuala izango duen oinarritzko hitzen zerrenda bat osatzeko edozein ahalegin derrigorrez konposatu teoriko gisa agertzen zaigu, kontaktuan dauden egitura lexikalak aztertzeko ezer gutxi lagunduko duena. Esaterako, ausaz egindako 100 unitate lexikoko “oinarritzko” zerrenda batean, 59 mailegu daude –sumertar eta akaziar jatorrikoak– hititeran, eta kanboieran –Khmer–, 61 mailegu lexikal –sanskrito, pali edo tailandiar jatorrikoak–; (Haarmann 1991: 232 hh.). Jatorritzko hitzen eta hitz mailegatuen arteko portzentaiek erakusten dute nolakoa den hizkuntza lokalen arteko kontaktuen maila akulturazionala, baina zerrenda horrek ez du laguntza handirik ematen hititeraren eta kanboieraren arteko bereizketa kronologikoa zehazteko orduan, euren oinarri protolinguistikoari dagokionez.

Kronohizkuntzalariek erabili dituzten 100 edo 200 unitateko kontzeptu oinarritzkoen zerrendako elementu asko eragin akulturazionalak har ditzaketen arlo lexikaletakoak dira. Betidanik uste izan da kontzeptu bat “oinarritzko” dela hiztunaren berezko ingurunean ezaguna den gauza bat adierazten badu, esaterako, ‘eguzkia’, ‘ura’, ‘animalia’, ‘anaia’ edo ‘zuhaitza’. Ikuspegi tradizioaletik, ez da mailegurik hartzen dagoeneko ezagunak diren kontzeptuak adierazteko. Mekanismo hau, berriz, ez da baliagarria, hizkuntzen arteko kontaktu sakonik gertatuz gero. Leku askotan ikusten da maileguak kontzeptu ezagunetarako berehala hartzen direla. Horrek esan nahi du maileguez jatorritzko hitzak ordezkatzeko dituztela.

Egoera hau akulturazio-prozesu baten adierazlea da. Hain zuzen ere, akulturazio-prozesu hori hizkuntza indartsu bateko hiztunekin harremanetan hasten diren hiztunen jarraibide sozialetan gertatzen da. Esaterako, latinak, erromatarren bizimoduaren kultur adierazbidea zenez, euskaldunen komunitateko kideen jarraibide sozialetan eragina izan zuen. Akulturazioa dakarren hizkuntzak prestigioa izan ohi du. Iberiako latinaren funtzioak prestigiotsuak ziren; horren agerbide argia erromatarren hiri-kulturaren aniztasuna izan zen. Erromatarren kulturak K. a. I. mendetik Antzinaroaren bukaerako garaietara bitartean gora egin zuen (Keay 1997).

Euskarak dituen latinetiko maileguez bezainbatean, gaur egun oraindik ez dago batere argi zerk eragin zituen. Trasken ustez (1997: 259), mailegu batzuk “esperogarriak” dira, beste batzuen zergatia ez da hain “begien bistakoa” eta beste batzuk, berriz, “gutziz harritzekoak” dira. *Gorputz* euskal hitza latinezko CORPUSetik dator, *denbora* TEMPORATik, *bago* FAGUTik, *golde* CULTERretik eta beste batzuk azken bi kategorietakoak dira. Glotokronologiaren aldetik, asko dira euskarak dituen latinetiko maileguen artean “begien bistako” zergatirik ez dutenak eta akulturazioa gertatzen den arlo batzuetan latindar jatorriko unitate lexikalak hartu dira.

Euskal terminologian dauden gorputz-atalei buruzko latinezko elementuen beheko zerrenda harritzekoa litzateke glotokronologiaren kontzeptu zaharkituei begiratuko bagenie soilik. Euskaldunen eta erromatarren arteko harreman sozial etengabeak kontuan hartuta, euskara-latina elebitasuna orokorra bazen ere, erromatar balioen prestigioa nagusitu zen. Harrigarria barik begien bistakoa da latindar oinarria duen terminologia euskararen erabileraren arlo pertsonalean eta partzialki intimoan badela.

<u>Euskal mailegua</u>	<u>Latinezko hitza</u>
<i>berna</i>	PERNA
<i>bilu</i> (VILLU hitzaren interferentzia tartean)	PILU
<i>boronte</i>	FRONTE(M)
<i>eskurr</i> 'guruina' (Zub., Naf.)	(A)ESCULU
<i>fuin, muin, (h)un</i>	FUNE(M)
<i>golko, kolko</i>	*COL(A)CU, COL(A)p(H)uren ordez
<i>gorputz</i>	CORPUS
<i>kaiku</i> 'sudurluzea / sudur konkorra' (Lap., Naf.) esaterako, <i>sudurr kaiku</i>	CAUCU
<i>khoro</i> 'bizkarrezurra'	CORONA
<i>kikirista</i> 'hegazti baten gandorra' (Lap., Naf.)	CRISTA
<i>kukulu</i> (Naf.), <i>kukula</i> (Gip.) 'oilarraren gandorra'	CUCULLU
<i>magina</i> 'bagina' (Naf.), 'himen' (Gip.)	VAGINA
<i>makila, makhila</i> 'hanka luze eta argala' (ironikoa)	BACILLA
<i>mamul, manbul</i> 'emakumearen bularraldea' (euskarazko <i>ugatz</i> hitzaren sinonimoa)	MAMMULA
<i>masaila, maxela, matraila</i>	*MAXELLA / MAXILLA
<i>maskulu</i> 'puxika'	VASCULU

---

2. Laburdurak: Gip.- gipuzkera, Lap.- lapurtera, Naf.- nafarrera, Zub.- zuberera.

<i>menatura</i> ‘alua’ (Okzitanieratik datorren euskal <i>eme</i> hitza + latinezko NATURA)	
<i>mizpira</i> ‘sudurzuloa’ (Lap., Naf.)	MESPILA
<i>musu, mosu</i>	*MUSU
<i>pantika, mandika</i> ‘urdaila’	*PANTICA(M), PANTICE(M)en ordez
<i>puxika, bixika</i>	VESSICA
<i>tekadi</i> ‘hatzamarra’ ( <i>hatz, er(h)i</i> euskal hitzen sinonimoa)	DIGITU

Latinak fisiologi beharrezanean buruzko terminologian izandako eragina ere nabarmena da, esaterako, *gorotz, korotz* hitza < CROCEA. Bertako terminologiaren eta terminologia mailegatuaren kopuruak aztertzeko Traskek (1997: 283) egindako ebaluazioan, latinetik hizkuntza erromanikoetara arteko hizkuntzari ez dio garrantzi handirik ematen. «...gorputz-atalen izenak itxuraz antigoalekoak dira, nahiz eta hizkuntza erromanikoetatik hartutako mailegu bakan batzuk ere badiren, hala nola, ‘berna’ eta ‘masaila’». Lehenago aipatutako latinetik maileguak ezezik, hizkuntza erromanikoetatik hartutako mailegu batzuk ere badira gorputz-atalen terminologian, hogeita bat, guztira. Mailegu horien artean hitz arruntak daude, esaterako, ondoko euskal hitzak: *berga, hanka, kasko, nerbio, solomo* eta *zola*.

Euskara ez da Antzinaroko azken garaian latinaren eragin akulturazionala jaso zuen hizkuntza bakarra. Gorputz-atalen terminologia berregituratu da orobat, latinaren eraginez, albanieran eta hizkuntza zeltetan, hala nola, galeseran eta bretoiaren. Adierazgarria da hizkuntza horietan duten gorputz-atalen terminologiako latinetik maileguak era askotakoak zirela. Horrek esan nahi du mailegu gutxi errepikatzen direla kontaktu-hizkuntzetan. Galeseran eta euskaran hitz hauek errepikatzen dira: CORPUS, CORONA eta PANTICE(M)/\*PANTICA(M). Albanieran eta euskaran errepikatzen diren hitzak CORPUS, CRISTA eta VESSICA dira. Horrenbestez, latinezko CORPUS hitza da hizkuntza hauetan guztietan errepikatzen den gorputz-atal bakarra. Batetik, paralelismo-urritasuna eta, bestetik, mailegutzat banan-banan hartutako terminoen ugaritasuna dira euskal lurraldeen akulturazioaren berezko baldintzen adierazle, Britainia zeltako eta Iliriako baldintzekin alderatuta.

Akulturazioa ere berezia izan zen leku bakoitzean, etnien arteko ezkontzei dagokienez. Iliria-n –protoalbaniar kokalekua dagoen eskualdean– eta Britainiako hegoaldeko eskualdeetan –zelten artean–, senidetasunari buruzko latinezko terminologiaren funtsezko termino batzuk hartu ziren mailegutzat. Hala ere, biztanle protoeuskaldunen eskualdean, latinezko terminoak ez dira gehiegi sartu senitarteko harremanetan. Latindar jatorriko maileguak gutxi dira, besteak beste, *mutila* –latinezko PUTILLUTIK– eta *agurea* –AVULE(M)etik–. Latinetik hizkuntza erromanikoetara bitarteko igaroaldiaren eragin handiaren ondorioz, senidetasunari lotutako zenbait termino erromaniko sartu ziren euskararen baitan, hala nola, *tia, tio, komai* ‘amabitxia’ eta *konpai* ‘aitabitxia’.

Laburbilduta, batetik, hizkuntz aztarna argiak daude euskaldunek nola eurenganatu zituzten erromatar bizimoduaren zenbait elementu eta nola erabili zuten terminologia berezia –esaterako, gorputz-atalen terminologia– adierazten digutenak. Bestetik, etnien arteko harremanetan ez zen nahasketa sozial handirik gertatu. Latinetik eta hizkuntza erromanikoetatik hartutako mailegu-kopuruetan dagoen aldeak erakusten duenez, harreman sozialak berandu xamar estutu ziren, ahozko latina hizkuntza erromanikoaren ezaugarri fonetikoak bereganatzeko behar bezain garaturik zegoen garaian. Hortaz, euskara-latina elebitasuna, edo hobeto esanda, aitzineuskara-latina elebitasuna dezente zabalduta zen, huraxe baitzen euskararen kasuan aurkitzen dugun eragin akulturazionala gauzatzeko aurrebaldintza. Hori gorabehera, argi dago etnien arteko ezkontzak garrantzi gutxiko faktore izan zirela Antzinaroko azken garaietan. Izan ere, senidetasunari buruzko euskal terminologia nagusiki jatorrizko elementuen erabileran egituratuta dago (Mitxelena 1969, Trask 1997: 268 hh.).


## Bibliografia

- Aertsen, H.; Jeffers, R.J., (arg.) (1993): *Historical linguistics 1989. Papers from the 9th international conference on historical linguistics (Rutgers University, 14-18 August 1989)*, Benjamins, Amsterdam eta Philadelphia.
- Aulestia, G., (1989): *Basque-English dictionary*, University of Nevada Press, Reno eta Las Vegas.
- Bernard, J.; Ruffié, J., (1976): "Hématologie et culture: le peuplement de l'«Europe del»ouest", *Ann. Ecole Sci. Prat. Hautes Etud.* 4, 661-676.
- Bouda, K., (1984): "Baskisch und Kaukasisch", *Zeitschrift für Phonetik* 2, 182-202.
- , (1949): *Baskisch-kaukasische Etymologien*, Carl Winter, Heidelberg.
- , (1952): "Neue Baskisch-kaukasische Etymologien", *Acta Salmanticensia Filologia y Letras* 5 (4), 3-16.
- Braun, J. (1994): *Nombres de los insectos en las lenguas kartvélicas y en el vasco*, in Orpustan 1994: 77-85.
- Bynon, T. (1977): *Historical linguistics*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Campbell, L., (1993): "On proposed universals of grammatical borrowing", in Aertsen/Jeffers 1993: 91-109.
- Carbonell, E.; Vaquero, M. (arg.) (1996): *The last Neandertals, the first anatomically modern humans. Cultural change and human evolution: the crisis at 40 KA BP*, Universitat Rovira i Virgili, Tarragona.
- Castro, M.C.F., (1995): *Iberia in prehistory*, Blackwell, Massachusetts, Oxford eta Cambridge.
- Cavalli-Sforza, L.; Cavalli-Sforza, F., (1995): *The great human diasporas. The history of diversity and evolution*, Addison-Wesley Publishing Company, Reading, Massachusetts etc.
- Cavalli-Sforza, L.; Menozzi, P.; Piazza, A., (1994): *The history and geography of human genes*, Princeton University Press, Princeton, New Jersey.
- Cavalli-Sforza, L. L.; Piazza, A., (1993): "Human genomic diversity in Europe: A summary of recent research and prospects for the future", *European Journal of Human Genetics* 1, 3-18.
- Chicobava, A.; Sturua, N., (1980): "On Euscaro-Caucasian linguistic relations: Evidence of the system of languages and their history", in *Euskaltzaindia* (1981), 459-464.
- Čirikba, V. (1985): "Baskiskij i severokavkazskie jazyki", in *Piotrovskij* 1985: 95-105.


- Clottes, J. (1976): "Les civilisations du Paléolithique supérieur dans les Pyrénées", in Lumley 1976: 1214-1231.
- Díaz-Andreu, M.; Keay, S. (arg.) (1997): *The archaeology of Iberia. The dynamics of change*, Routledge, Londres eta New York.
- Gamble, C., (1986): *The Palaeolithic settlement of Europe*, Cambridge University Press, Cambridge.
- García de Diego, V., (1968): *Diccionario etimológico español e hispánico*, Editorial S.A.E.T.A. (= 1955), Madril.
- Gimbutas, M., (1991): *The civilization of the goddess. The World of Old Europe*, Harper, San Francisco.
- Haarmann, H., (1970): *Der lateinische Lehnwortschatz im Kymrischen* (doktore tesia). Universitätsverlag, Bonn.
- , (1979): *Der lateinische Einfluss in den Interferenzonen am Rande der Romania. Vergleichende Studien zur Sprachkontaktforschung*, Helmut Buske, Hamburg.
- , (1986): *Language in ethnicity - A view of basic ecological relations*, Mouton de Gruyter, Berlin eta New York.
- , (1990): "Basic vocabulary and language contact: The disillusion of glottochronology", *Indogermanische Forschungen* 95, 1-37.
- , (1991): *Basic aspects of language in human relations. Toward a general theoretical framework*, Mouton de Gruyter, Berlin eta New York.
- , (1995): "Europeanness, European identity and the role of language. Giving profile to an anthropological infrastructure", *Sociolinguistica* 9, 1-55.
- , (1997): On the problem of primary and secondary diffusion of Indo-Europeans and their languages, *Journal of Indo-European Studies*.
- Hervás y Panduro, L. (1784): *Catalogo delle lingue conosciute e notizia della loro affinità, e diversità*, Gregorio Biasini, Cesena.
- Hubschmid, J., (1965): *Thesaurus praeromanicus, vol. 2: Probleme der baskischen Lautlehre und baskisch-vorromanische Etymologien*, Francke, Bern.
- Keay, S., (1997): "Urban transformation and cultural change", in Díaz-Andreu/Keay 1997: 192-210.
- Lafon, R., (1976): *Baskiskij jazyk i basksko-kavkazskaja gipoteza*, Tbilisi.
- Lumley, H. de (arg.), (1976): *La préhistoire française*, Centre National de la Recherche Scientifique, Paris.
- Martinet, A. (arg.), (1968): *La langue*, Editions Gallimard, Paris.
- Mellars, P. (arg.), (1990): *The emergence of modern humans. An archaeological perspective*, Edinburgh University Press, Edinburgh.
- Michelena, L. (1953): "Review of Bouda 1952", *BRSVAP* 9, 141-144.
- , (1964a): *Textos arcaicos vascos*, Ediciones Minotauro, Madril.
- , (1964b): *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia.
- , (1968): "L'euskaro-caucasien", in: Martinet 1968: 1414-1437.
- , (1969): "Sobre algunos nombres vascos de parentesco", *FLV* 1, 113-132.
- , (1985): *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril.
- Morvan, M., (1996): *Les origines linguistiques du basque*, Presses universitaires de Bordeaux, Bordele.
- Müller, Klaus E., (1987): *Das magische Universum der Identität - Elementarformen sozialen Verhaltens. Ein ethnologischer Grundriss*, Campus, Frankfurt eta New York.
- Orpustan, J. B., (arg.) (1994): *La langue basque parmi les autres. Influences et comparaisons*, Editions Izpegi, Saint Etienne de Baigorri.
- Piotrovskij, B. B., (arg.) (1985): *Drevnjaja Anatolija*, Nauka, Moscow.
- Reynolds, T., (1990): "The Middle-Upper Palaeolithic transition in southwestern France: Interpreting the lithic evidence", in Mellars 1990: 262-275.




- Ruhlen, M., (1994): *On the origin of languages. Studies in linguistic taxonomy*, Stanford University Press, Stanford.
- Ruspoli, M., (1987): *The cave of Lascaux. The final photographic record*, Thames and Hudson, Londres.
- Straus, L. G., (1990): "The early Upper Palaeolithic of southwest Europe: Cro-Magnon adaptations in the Iberian peripheries, 40000 - 20000 BP", in Mellars 1990: 276-302.
- , (1996): "Continuity or rupture: convergence or invasion; adaptation or catastrophe; mosaic or monolith: Views on the Middle to Upper Paleolithic transition in Iberia", in Carbonell/Vaquero 1996: 203-218.
- Trask, R. L., (1996): *Historical linguistics*, Arnold, New York, Sydney, Londres.
- , (1997): *The history of Basque*, Routledge, Londres eta New York.
- Vennemann, T., (1993): "Zur Erklärung bayerischer Gewässer- und Siedlungsnamen", *Sprachwissenschaft* 18, 425-483.
- , (1994): "Linguistic reconstruction in the context of European prehistory", *Transactions of the Philological Society* 92, 215-284.
- , (1995): "Etymologische Beziehungen im alten Europa", *Der Gingko-Baum: Germanistisches Jahrbuch für Nordeuropa* 13, 39-115.
- Villar, F., (1991): *Los indoeuropeos y los orígenes de Europa. Lengua e historia*, Gredos, Madril.
- Volodin, A. P., (arg.) (1997): *Jazyki mira: Paleoaziatskie jazyki*, Indrik, Moscow.



1. mapa: Euskal sustrai lexikala duten toki-izenak eta O odol-taldearen banaketa (Bernard eta Ruffie 1976).



**2. mapa:** Euskal genotipoa eta bere mailaketa  
(Cavalli-Sforza eta Cavalli-Sforza 1995: 235).



**3. mapa:** Arte errupestre paleolitikoak Frantziako hegoaldean eta Espainiako iparraldean dituen kokalekuak (Ruspoli 1987: 302).